Nire bost hitzak

Alberto Rodríguez González
ADOPTIA - Agintzariko psikologoa

Eskatu didate konta dezadala zer-nolako ibilbidea egin dudan Gipuzkoako Ume Alaian 2006. urtean adoptatuei eta haien senideei laguntzen hasi nintzenetik.

Duela 30 urte pasatxotik, Agintzari-k, ADOPTIA zerbitzuaren bidez, konpromisoa izan du babesa emateko hala harrera- eta adopzio-familiei nola harreran eta adopzioan hartutako pertsonei. Gipuzkoako Ume Alaia elkartearen bilakabidean, beraz, hor ondoan egon da Adoptia, eta orain ere hor dabil, besteak beste tailerrak eginez, trebakuntza-ekintzak antolatuz eta familia-egoera zailetan espezializatutako laguntza psikologikoa emanez, betiere esku hartzeko bide berritzaileak erabiliz, adoptatutakoak hazi ahala detektatzen diren aldaketa eta premietara egokiturik.

Aurkezpena eginda, eta beste tonu batean, **BOST HITZEN** bidez kontatu nahi nuke nire bizipena, iruditzen baitzait ondo laburbiltzen dutela aro oso hau.

Nire lehen hitza **BIDEA** da. Izan ere, bide honetan, gero eta sakonago ulertu dugu nola sufritzen duten adoptatu askok eta haien familiek, eta nolako ezina sentitzen zenuten ohartzen zinetenean eskaintzen ari zineten txera, denbora eta baliabide horiek guztiak ez zirela nahikoa zailtasunak saihesteko.

Gaur egun, askoz hobeto asmatzen dugu ulertzen zer sentitzen duten abandonatuak eta adoptatuak izan direnek, eta zer bide zaila egiten duten eskolan, nerabezaroan eta adin nagusiko bihurtzean. Nahiago nuke lehenago

jakin izan bagenu nola lagundu halako esperientzia traumatikoetan, nola aurre egin istorio bati ia informaziorik ez dagoenean… Baina garrantzitsuena da bide horretan ezinbestean ikasi behar izan dugula ezen pentsatzen eta sentitzen diren gauza guztiek ez daukatela konponbiderik, baina sufrimendua, besterekin partekatuz gero, ez dela hain sufrimendu handia.

Horrela begiratuta, niretzat behintzat, bideak zentzu handia du; batez ere, familiek, adoptatuek eta profesionalek denek elkarrekin egin dugulako.

Donejakue Bidea egin nuenekoa ere oroitarazten dit honek guztiak; izan ere, gogoan ditut oraindik esperientzia hartako une eta aurpegi asko, eta beste hainbeste gertatzen zait Gipuzkoako Ume Alaiarekin: lehen hitzaldia eman nuenetik, lehen gazte-taldearekin hasi nintzenetik eta familia-talde batean hasi nintzenetik han egin dudan denbora osoaz –uste dut oraintxe hogei urte bete ditugula azken talde horretan– oroitzapen ederrak baino ez ditut. “Familia guztiok luxu handia zarete”.

Bigarren hitza **MINA** da. Familia askoren minera hurbiltzeko aukera izan dut, eta, batez ere, eskuzabaltasuna sentitu dut, eta ekina, eta ez dagoen lekuan ere indarra aurkitzeko indarra. Min hori, batzuetan, latzegia izan da, adibidez zenbait lagun garrantzitsu hil zaizkigunean, garairik zailenetan ere indarra taldetik sortzen dela ikusarazi diguten lagun horietako batzuk. Familia-taldeak funtsezkoak izan zarete, hor egon baitzarete profesionalok ez geundenean ere, egunean 24 orduz, astean zazpi egunez.

Eta argi daukat presentzia horrek arindu egin duela mina, eta oraindik ere arintzen duela, nahiz eta haietako askok 25 urte baino gehiago dituzten jada.

Adin nagusiko bihurtzea ez da ezeren amaia: puntu eta jarrai egitea da. Oraindik ere denbora behar duzu zauriak sendatzeko, zer gertatu zaizun ulertzeko, eta bizitzak emandakoarekin bizitzen ikasteko, ez etsipenez, baizik onartuz horrela ere bizi daitekeela ondo. Ikasi behar izan dugu helburua beti ez dela zoriontsu izatea (lor badaiteke, bikain), baizik zeure buruaz harro

egoten ikastea, eta zeure ahaleginaz, familiaz eta, batez ere, zaren bezalakoa izateaz. Ez da erraza horraino iristea. Orduan baino ez du zentzua hartzen sufritutako eta adierazitako minak. Bestela, gerta daiteke mina gurpil batean sartzea, eta, halakoetan, konponbideak arriskutsuagoak izaten dira batzuetan.

Tarteka, onartu behar izan dugu ezin dela minik gabe bizi, baina ikas daitekeela min horrekin bizitzen, betiere min hori partekatzen baldin bada.

MALKOAK eta **BESARKADAK**: horra hirugarren hitza eta laugarrena. Batzuetan erdi txantxetan esan ohi dut ezen, ehunka liburu irakurri ondoren, eta dozenaka hitzalditara, trebakuntza-saiotara eta abarretara joan ondoren, azkenerako ikasi behar izan dugula bi gauzak erregulatzen eta baretzen dutela gehien sufrimendua eta arintzen dituztela baita bizipen traumatikoak ere: bata da sufrimenduzko malkoak kanporatu ahal izatea eta senideren batek malko horietan lagun egitea, malko horiek jasotzea; bestea, kontaktu fisikoaren bidez gorputzaren eta emozioen deskontrolari eutsi ahal izatea. Besarkada batzuek hain dute eragin izugarria, ezen nahiago bainuke hori hobeto ulertuko bagenu.

> Baina garrantzitsuena da bide horretan ezinbestean ikasi behar izan dugula ezen pentsatzen eta sentitzen diren gauza guztiek ez daukatela konponbiderik, baina sufrimendua, besterekin partekatuz gero, ez dela hain sufrimendu handia

Azken hitza, berriz, hauxe baizik ezin da izan: **MILESKER**. Zorionekoa sentitzen naiz denbora honetan guztian Gipuzkoako Ume Alaiarekin batera aritu naizelako. Hazi egin naiz, bai pertsonalki eta bai profesionalki, eta nire sarea ere zabaldu dut, adoptatuetako eta familietako asko nire bizitzaren parte baitzarete orain; azken batean, 15 urte pasatxo dirauen laguntza profesional batek utzi egiten dio, azkenerako, harreman profesional hutsa izateari, eta harreman esanguratsu bihurtzen da.

Oroitzapen mordoa geratu zait gogoan, baina, batez ere, jendearen aurpegiak eta izenak; denborarekin, argi gelditu da aurrera egiten dutela, aurrera egiten duzuela. Eskertuta nago, era berean, egoerarik larrienak erronka

profesionalak izan direlako eta ezinbestean behartu gaituztelako konponbideak bilatzera kontrolik gabeko indarkeriari, autolesio-kasuei, bizipen traumatikoak berriz pizten dituzten egoerei, diskriminazioari, suizidio-saialdiei… Duela 20 urte pasatxo, Gipuzkoako Ume Alaiarekin hasi nintzenean, argi neukan ez nuela aritu nahi kasu horietako askotan, eta pribilegiatua naiz: minaren eta aurrera agiteko beharraren poderioz, modu berriak ikasi behar izan ditut egiteko, egoteko, familiei lagun egiteko eta beste gauza askotarako.

Baina, batez ere, honek denak umildu egin gaitu: orain badakigu ez garela ahalguztidunak, ez dugula ezeren konponbiderik, baina elkarrekin indartsuagoak garela.

Zenbaketa egin, eta ikusi dut 13 familia- eta gaztetxo-taldetan baino gehiagotan parte hartu dudala, theraplay saioetan ere bai, hamaikatxo bat hitzalditan, babesa emateko zenbait esku-hartze psikologikotan, eta, batez ere, ekitaldi oso berezi batean: azaroko zineforumean.

Beraz, zera besterik ezin dut esan: **MILESKER, MILESKER, MILESKER**, konfiantza izateagatik; Javier Múgicari eta bioi, Agintzariko kide gisa, hor egoten uzteagatik; gure jakintza eta egiten-jakitea partekatzen uzteagatik; baina, batez ere, elkartea hazi ahala hor egoteko aukera emateagatik.

Zoritxarrez, desafiorik ez zaigu falta izango, zer-eta sufrimendua baitugu langai; baina, era berean, pozten nau ikusteak zenbat jendek egiten duen aurrera ondo, ahaleginaren ahaleginez. Eredu dira denontzat, edo gutxienez niretzat bai.

Ikusten duzuen bezala, aipatu ditudan hitz horiek guztiak biltzen ditu niretzat Gipuzkoako Ume Alaiak; horri esker, modua dut irribarrea ez galtzeko, edo, gutxienez, talde baten parte naizela sentitzeko. **BIDEA, MINA, MALKOAK, BESARKADAK** eta **MILESKER**.

Maitasun handiz.